

ERAIKINEN PARTAIDETZA-PROZESUA

Bilera-mota: Itzulera-saioa

Data: 2020/11/30

Ordutegia: 17:00-18:15

Lekua: Herri eskolako gela borobila

| Parte-hartzaileak | Gai-zerrenda |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> ✓ Guztira 16 herritar: <ul style="list-style-type: none"> - 10 emakume eta 6 gizon ✓ Udal ordezkariak: 2 gizon eta 2 emakume ✓ Udaletik: Josune Artola (eragile sozio-kultura) ✓ Elhuyar Aholkularizatik: Nerea Zubia eta Idurre Zugazagasti | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ongi-etorria eta aurkezpena 2. Partaidetza-prozesutik eratorritako emaitza eta erabakiak partekatzea 3. Balorazioa 4. Itxiera: eskerrak ematea |



1. Ongi-etorria eta aurkezpena

Itzulera-saioari hasiera emateko bertaratutako guztiei ongi-etorria eman zaie. Ondoren, Elhuyarreko kideek partaidetza-prozesuaren bilakaera gogorazi dute eta saioaren planteamendua aurkeztu dute.

2. Partaidetza-prozesutik eratorritako emaitza eta erabakiak partekatzea

Jarraian, Gorka Muruak, Irurako alkateak, partaidetza-prozesu bat aurrera eramateak eta bertatik eratorritako emaitza partekatua izatearen garrantzia azpimarratu du, udal gobernuak herritarrekiko duen konpromisoaren erakusle.

Lehen aspektu honetatik eratorrita, udal gobernuko ordezkariak beharrezko ikusi zuten erabakia hartu aurretik, bigarren buelta bat ematea beharrezkoa zela, izan ere gogoeta-saioan herritarrengandik jasotako iritzi eta proposamenak beraien uste eta “mugetatik” haratagokoak izan baitziren.

Gauzak honela, udaletxearen eraberritzerako 3. aukeraren bideragarritasuna berraztertzea erabaki zuten. Horretarako hainbat aspektu izan dira kontuan, hala nola: diru-laguntza lerro berriak, proiektuaren gaineko kostu desberdinak (proiektua idaztea, adibidez), mailegua luzatzeko aukera...

Horrek guztiak ekarri du hurrengo erabakitzea:

- Udaletxearen eraberritzerako 3. aukera lehenestea. Hau da, oinarritzko betebeharrei erantzuten dien proposamena, atzeko anpliazioa egin eta hirugarren solairu bat eraikitzearekin batera.
- Zahar-etxeko beheko solairuan herri-ostatu bat zabaltzea, kultur ekitaldietarako aukerarekin batera.
- Haurreskolako lehen solairuan erabilera anitzeko areto bat ezartzea, tamaina desberdinetako gelak ezarri eta kentzeko aukera emango duena.

Lehentasunak ere ezarri dira. Aurrenekoa eta 2021. urtean ekin beharrezkoa udaletxearen eraberritzea izango da. Proiektua idatzi edo berrikusi beharra dago, exekuzioa esleitu... eta behin eraikuntza-lanekin hasita udal-zerbitzuak beste nonbait kokatu behar dira, eta honek ere alde aurretik antolatutako beharra eta beste hainbat lan ekarriko ditu.

Ondoren, herri-ostatuaren proposamena etorriko litzateke, herritarrengandik lehentasuneko aspektu bat zela ikusi baitzen. Kasu honetan ere, aurrerago etorriko dira zer-nolako herri-ostatu nahi dugun hausnartzeak, kudeaketari buruzko gogoetak...

Eta hurrenkeran azkena, haurreskolako lehen solairuko proposamena dago. Kasu honetan erabilera anitzeko espazio bat izatea lehenetsi da, gela txikiak eta espazio zabalak uztartzeko aukera emango duena.

Hortaz, asmoa baino nahia litzateke legegintzaldia amaitzerako udaletxearen eraberritzea bukatuta egotea, herri-ostatua martxan jartzeko pausuak ematen egotea eta erabilera anitzeko espazioaren obrekin hasita egotea. Hala ere, ziurgabetasun garaiotan epeez hitz egitea zaila da, oso.

Testuinguru honetan, udal gobernuaren asmoa da ere partaidetza-prozesurako sortutako Jarraipen Batzordearen segida ematea, bertatik eratorritako erabaki eta lanen jarraipena egiteko helburuarekin. Gaur egun, bi herritarrek eta bi udal-ordezkarik osatzen dute batzordea, hala ere, norbaitek parte hartzeko interesa balu unea dela agertu da.

Gorkaren azalpenak amaituta eta galderetarako tartea eskaini ondoren, Elhuyarreko kideek partaidetza-prozesuaren baitan jasotako behar eta proposamenak laburbildu dituzte, hauen erantzuna zein izango den zehaztearekin batera.

- Alde batetik, hiru udal-erakinek hainbat behar erantzungo dituzte eta hainbat proposamen hartuko dituzte
- Bestetik, badira espazio itxiei dagozkien beste hainbat proposamen kanpo gelditu direnak, ez dutenak partaide guztien babesa jaso baina hala nola, hiru udal-erakinek hauetan edo udalak dituen beste zerbitzuen bidez erantzuteko modukoak direna.
- Eta azkenik, bai herritarrengandik, bai udal-teknikariengandik jasotako gainerako behar eta proposamenak. Udalak, auzoz auzoko dinamikan jasotzen diren proposamenen antzera, kontuan hartuko ditu etorkizuneko udal plangintzan eta kudeaketan.

3. Balorazioa

Aurkezpenen ondoren, balorazioari heldu zaio.


Lehendabizi, bertaratutakoei modu irekian bai partaidetza-prozesuaren gaineko, baita erabakiaren gaineko balorazioa eta sententzioak partekatze eskatu zaie eta hurrengoak izan dira egindako ekarpenak:

- Udalak egin duen lana eredu garria da. Udal-teknikari eta udal-ordezkarien inplikazioa eskertzekoa da.
- Oso ondo iruditu zaizkit prozesuan eman diren urratsak (etxetarako diptikoa, gogoeta-saioak...). Eta hemen, zuzenean, parte hartu ez arren, herri guztiak izan du honen berri.
- Hartutako erabakiak norberarenak sentitzearen potentziala. Prozesuak erabakiei indarra ematen die. Informazioa izatea. Erabaki estrategikoetan halako bideak erabiltzeak asmatu egin da.
- Parte hartzeari dagokionez, ondo joan da eta aberasgarria izan da. Emaitzarekiko kritika bat: udaletxe eskailera nagusia aldatzen da, igogailuaren mesedetan eta hori ez dut egoki ikusten. Eta bestalde, udal gaineko espazioak kirola egiteko mugatua izango da, espazioaren egiturarengatik.

- Harrituta emaitzarekin eta sorpresa izan da. Eta denerako ematen badu, pozik. Herritar anitzen iritziak balioan jartzea eta hartutako erabakian parte sentitzea.
- Zahar-etxeko eta haurreskolako proiektuak ere gisa honetako prozesu baten bidez egingo da? Bere garaian proiektu batzuk egin ziren baina ikusi beharko da ea gaur egungo beharrei erantzuten dien eta zer behar duen izan, gehiago zehaztu beharra dago.
- Sorpresa ona, ez genuen aurreikusten.

Ondoren, banakako balorazioa egiteko eskatu da. Balorazioa mugikor bidez egin da eta hurrengo izan da emaitza:

| ALDAGAIA | BATAZBESTEKOA |
|------------------|---------------|
| Edukiak | 8,4 |
| Metodologia | 8,6 |
| Parte-hartzea | 8,1 |
| Giroa | 8,6 |
| Asebetetze-maila | 8,7 |



4. Itxiera: eskerrak ematea

Azkenik, bertaraturakoei eta partaidetza-prozesuan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko bideo labur bat partekatu da.

Mila esker!